

SOLUZIOAK MAIATZA

Hona hemen maiatzean Euskal Herriko herri desberdinetako umek beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.


Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Baiez Hamahiru!

Hona Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



Handienetik txikienera



Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 8.




Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Denboraren dominoan



Bakoitzari berea

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.



Itzala

Ai, gaixoa Pelloziri. Usapal batek kaka egin dio leihuan eta garbitu beharra dauka. Pura harrigarria du, ezta? Baina lasa, ez da leihatik eroriko, eta eroriko balitz ere, ez litzateke larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Beno, beno, utz ditzagun azalpenak eta harira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.

Sudokua

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagoekin tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

A	H	O	L	I	E
L	I	E	H	A	O
H	L	A	E	O	I
O	E	I	A	L	H
E	O	L	I	H	A
I	A	H	O	E	L

Mezu Gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.

